



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren XVIII. URTEURRENA beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekuatzat dugu; siste-matizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATA**ENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 24an, larunbatean, goizeko 11etan.**

2023-24ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako **Izargain-DelaMataren Eskolan** astero garatzen ari garen **www 16. Mintegiarekin.**

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkiaz gozatzen eramango gaitu. Guztion artean, **PALESTINA** antzeztuko dugu.

Lanaren bilbea herri honen Historiari gure omenaldi hunkitu, miretsi eta elkartasunezkoa da. 80 urtez sarraski anglo-sionista pairatzen ari da; hala ere, zutik darrai borrokan duintasunez, bonben kontra, genozidio basatienaren kontra, milaka haurren hilketaren kontra eta guda kognitiboaren kontra.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu (bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, **otsailaren 21a** baino lehen, mesedez).

Areson zuen zain gaituzue... Etorri!
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso
DE LA MATAENEA
2024ko otsailan

